



2017/05/25EKO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2017/05/25
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:25

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte . alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Martin Arriolabengoa Unzueta

Jose Ramon Uribe Uriarte

Maria Cristina Etxenausia Irure

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Rafael Maria Bengoa Altuna

Andoni Erkiaga Agirre

Roman Berriozabal Azpitarte

Ez bertaratuak:

Jon Ugarte Ugarte

Roberto Lasaga Arriaran

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzalea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1.	2017/04/27AN EGINDAKO OSOKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA	3
2.	DEKRETUEN BERRI EMATEA	3
3.	JARDUERA EKONOMIKOARI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA ALDATZEA	3
4.	IZENDATZEA HERRIKO JAI EGUN OFIZIALA 2018RAKO	4
5.	BALIO GEHIKUNTZARI BURUZKO ZERGARI DAGOZKION LIKIDAZIOEN ETENDURA JASOTZEA	5
6.	EUSKARA IKASTEAGATIK DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA EGITEA	5
7.	IKASLEENTZAKO GARRAIO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA EGITEA	6
8.	UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZA ETA MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA	8
9.	ARAMAIOKO UDALAREN ESKU DAUDEN HAINBAT ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA	9
10.	ESKAERAK ETA GALDERAK	9



GAIK

1. 2017/04/27AN EGINDAKO OSOKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkate-Lehendakariak 2017ko apirilaren 27an egindako ohiko bilkuraren aktaren gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork aktari buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (104/17tik 144/17ra).

3. JARDUERA EKONOMIKOARI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA ALDATZEA.

Alkateak jakinarazten du, aurrekoan, Arabako Foru Aldundiak eman zuela 18/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa, Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzko 43/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, aldatzeko. Aipatu beharra dago, Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga zuzeneko zerga erreala dela; enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritze hutsa kargatzen duela, arauetan eta ordenantzetan ezarritakoari jarraituz. Gaur egun, salbuespena daude, 2.000.000 euro baino eragiketa bolumen txikiagoa duten subjektu pasiboak. Aldaketa honen bidez, foru arau horren helburua da salbuespen horren aplikazio eremua murriztea, eta, hartara, eragiketen bolumen hori 1.000.000 eurokoa izatea. Aldaketa horren ondorioz, udal ezberdinak behartuak daude zerga horri buruzko ordenantza moldatzera.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Behin behineko onarpena ematea Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren 7. artikuluen 1. Paragrafoaren c) letraren aldaketari, honela geratzen delarik idatzita:

"c) Eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, betiere eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena bada.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, zuzenean edo zeharka, letra honetan jasotzen den eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, hain zuzen ere Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluetan zehazten direnetakoak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorio bada.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa bolumena sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 5. Artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da (37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, sozietateen gaineko zergari buruzkoa).

2. Eragiketa bolumena, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren peko subjektu pasiboaren kasuan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren peko zergadunen kasuan, izango da haiei dagozkien aitortzen aurkezteko epea zerga betebeharra sortu aurreko urtean amaiturik duten zergen zergaldikoa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako sozietate zibilen eta erakundearen eragiketen bolumena izango da zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa.

Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtebeteraino igoko da.



3. Subjektu pasiboaren eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, hark egindako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua araberako, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundearen multzoari egokituko zaizkio.

4. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketako bolumena hartuko da kontuan."

Bigarrena.- Indarrean dagoen ordenantzaren xedapen iragankorren atalari, bigarren xedapen bat gehitzea:

"Bigarrena. 2017., 2018. eta 2019. zergaldietan aplika daitezkeen hobariak

1. Xedapen orokor honen bidez orain aldatzen den foru arauaren 5. artikulua 1. paragrafoaren c) idatz zatiaren aurreko erredakzioarekin bat etorritik, ekonomia jardueren gaineko zergatik salbuetsirik egongo liritekeen subjektu pasiboari edo 2017ko urtarrilaren 1az geroztik jarduera ekonomiko hastean egon ahal izan ziren subjektu pasiboari, orain sartzen den aldaketaren bertutez zerga kuota ordaindu beharra sortzen bazaie, zergaren azken kuotari, den probintziakoa edo estatukoa, hobaria aplikatuko zaie, ondoren aipatzen diren ehunekoen eta zergaldien arabera:

Zergaldia	Hobari aplikagarria
2017	ehuneko 75
2018	ehuneko 50
2019	ehuneko 25

Hirugarrena.- Behin behineko akordio hau eta horretarako izapidetutako espedientea jendaurreko informazio-erakustaldian jartzea 30 eguneko epean ALHAOn iragarkia argitaratzen denetik zenbatzen hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta egoki irizitako erreklamazio edo oharra idatziz aurkeztu ditzaten. Udaletxeko iragarki oholean ere jarriko da iragarkia.

Laugarrena.- Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betiko onartutzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.-

Bostgarrena.- Behin betiko akordioa, kategoria horretara heldutako behin behineko akordioa barne, eta aldaketaren testu osoa ALHAOn argitaratuko dira.‰

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. IZENDATZEA HERRIKO JAI EGUN OFIZIALA 2018RAKO.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta, jakinarazten du, maiatzaren 2an argitaratu zela 148/2017 DEKRETUA, apirilaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2018 urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena. Horrek, indarrean dagoen araudiarekin bat, xedatu zuen, bi mila eta hamazortzigarren urtean, egun baliogabetzat hartuko direnak lan ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan, hots, ordaindu egingo direnak eta ez direnak berreskuratu beharko. Halaber, esandako dekretuak udalei eskatzen die, tokian tokiko jai egun ofiziala ere izendatu eta Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari jakinarazi diezaiotela.

Alkateak aurkeztu du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehenena.- Uztailaren 2a izendatzea Aramaioko jai egun ofiziala 2018 urterako.

Bigarrena.- Dagokion jakinarazpena egitea Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari.+

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



5. BALIO GEHIKUNTZARI BURUZKO ZERGARI DAGOZKION LIKIDAZIOEN ETENDURA JASOTZEA.

Alkateak hitza hartu eta gogorarazten du, 2017ko martxoaren 30eko Osoko Bilkuran erabaki zela, besteen artean, balio gehikuntzari buruzko zergari dagozkion likidazioetan etendura eta, horrenbestez, likidazio berririk ez egitea, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko martxoaren 1eko epaitik eratorritako eraginak argitzeko asmoz dagozkion neurriak hartzen ez ziren arte.

Oraingoan, aldiz, Arabako Foru Aldundiak ebazpena eman du arazoari konponbidea emateko. Horrela, Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua ebatzi du, martxoaren 28koa, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zergarekin lotua.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

Bakarra.- 2017ko martxoaren 30ean erabakitako likidazioen etendura jasotzea.+

Ondoren, alkateak bozketa deitu eta Udaltzari, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. EUSKARA IKASTEAGATIK DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA EGITEA.

Alkateak hitza hartu eta Euskara eta Hezkuntza Batzordeak luzatutako proposamenaren berri ematen du:

Aramaioko Udala 2005eko otsailaren 23ko bilkuran onartutako ordenantzari jarraiki, 2017 urtean euskara ikasteagatik diru-laguntza deialdia egitea dagokio. Horren bidez, Aramaioko Udala, euskara ikasteko ikastaroak egiteagatik edota UEUko Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzeko deialdia egiten du.

Aurrekoarekin bat, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak proposatzen dio Udaltzari akordio hau har dezan:

Lehen.- Onartzea euskara ikasteagatik diru-laguntza deialdia egitea.

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn eta hasiera ematea eskabideak aurkezteko epeari.+

Lehendakariak bozketa deitu du eta Udaltzari, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, Ongizate Batzordearen proposamena, aho batez ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Deialdiaren oinarrien testuak horrela dio, hitzez hitz:

EUSKARA IKASTEAGATIK DIRU-LAGUNTZAK 2017KO DEIALDIA

Aramaioko Udala 2005eko otsailaren 23ko bilkuran onartutako ordenantzari jarraiki, 2017 urtean euskara ikasteagatik diru-laguntza deialdia luzatzen du.

LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea:

Aramaioko Udala euskara ikasteko ikastaroak egiteagatik edota UEUko Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzeko deialdia egiten du.

Deialdi honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru kopurua 1.500 eurokoa da eta finantzatuko da 03.335.481.008 aurrekontuko kontusailaren kontura.

Aipatutako diru kopurua gehitu ahal izango da, Udala Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

BIGARRENA.- Onuradunak:

Aramaion erroldatuta egonik, 2016-17 ikasturtean euskaltegi homologatuan euskara ikastaroak (ikastaro arrunta zein barnetegi izaerakoa) egin dituzten edota UEUko ikastaroetan parte hartu duten pertsona fisikoak.

HIRUGARRENA.- Egitarau subentzionarioak:

- 2016-17 ikasturtean zehar euskara ikasteko egin diren ikastaroak lagunduko dira.
- 2017an, UEU, Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeagatik laguntza eskainiko da.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzen izaera:

Diru-laguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez.

BOSGARRENA.- Diru-laguntzen zenbatekoa:



Diru-laguntza hauek emateko udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko da: 1.500 euro 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura.

Aurrekontuaren kontura banatuko dira diru-laguntzak eta honako hau izango da irizpidea:

- Egin den ikastaroaren matrikula osoaren ehuneko 80 lagunduko da diruz, baldin eta ikasturtea gainditu badu eta asistentzia ehuneko 80 edo gehiago dela ziurtatzen badu eskatzaileak.
- Jaso daitekeen gehieneko diru-laguntzak ezingo du gainditu matrikularen zenbatekoa.
- Diru-laguntzak, aurkeztutako eskaeren arabera kalkulatu dira. Balorazio hori, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egingo du, teknikariaren laguntzarekin.

Behin eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak proposamena Alkateari luzatuko dio.

SEIGARRENA.- Diru-laguntzen ordainketa:

Alkateak Euskara eta Hezkuntza batzordearen proposamena ontzat hartu eta ebatzi eta gero, diru-laguntzaren ehuneko ehuna ordainduko da.

ZAZPIGARRENA.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

7.1. Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duenak honako hau aurkeztu beharko du:

- Eskatzailearen NAREN fotokopia.
- Egin den ikasketen matrikularen kopia.
- Kontu korronte zenbakia eta titularraren izena eta abizenak.
- Klaseetako presentziaren ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena adieraziz ez dela 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorren, IV Tituloan jasotako arau-hauste batengatik zigortua izan.
- Ogasuneko eta Segurantza Sozialeko ziurtagiriak, eskatzaileak zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak.

Azken bi dokumentua zinpeko aitortpen batek ordezkatu dezake, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, diru-laguntzetarako lege orokorraren, arabera.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskaera egiteak dakar oinarri hauetan ezarritakoa espresuki zein formalki onartzea.

Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluaren aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, pertsona eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie hutsuneak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, ezetza emandakotzat joko delarik.

7.2. Eskaerak Aramaioko Udalak aterako duen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira, behar bezala beteta, 7.1 atalean zehazten den dokumentazioarekin batera.

7.3. Eskabideak aurkezteko epea 2017ko irailaren 7an amaituko da.

7.4. Eskabideak Aramaioko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira, bulego ordutegian (9:00etatik 14:00etara). Honek ez du eragozten 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 16.4. artikuluan ezarritakoa bete behar izatea.

ZORTZIGARRENA.- Interpretazio eskumena:

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ebatziko du zalantza.

BEDERATZIGARRENA.- Organo eskudunak:

9.1. Hezkuntza eta Euskara batzordea izango da espedientearen jarraibideak eta proposamena emango dituen organoa. Alkatea izango da diru-laguntzen ebazpena egingo duen organoa.

9.2. Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio-egintza guztiei aurka egingo ahal izango zaie, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako egoera eta eratan.

(ESKAERA ORRIA ATXIKITZEN DA)"

7. IKASLEENTZAKO GARRAIO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA EGITEA.

Alkateak hitza hartu eta Euskara eta Hezkuntza Batzordeak luzatutako proposamenaren berri ematen du:

Aramaioko Udalak 2005eko otsailaren 23ko bilkuran onartutako ordenantzari jarraiki, 2017 urtean garraio diru-laguntza deialdia egitea dagokio. Horren bidez, Aramaioko Udalak, Aramaiotik kanpo ikasten duten herritarrei diru-laguntzak ematen zaie garraioagatik, beti ere, aurrekontuan jasota dagoen partidaren mugaren barruan.

Aurrekoarekin bat, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak proposatzen dio Udaltzari akordio hau har dezan:



Lehena.- Onartzea ikasleentzako garraio diru-laguntza deialdia egitea.

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn eta hasiera ematea eskabideak aurkezteko epeari.+

Lehendakariak bozketa deitu du eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, Ongizate Batzordearen proposamena, aho batez ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Deialdiaren oinarrien testuak horrela dio, hitzez hitz:

DIRULAGUNTZA IKASLEENTZAKO, GARRAIO GASTUETARAKO 2017KO DEIALDIA

Aramaioko Udalak 2005eko otsailaren 23ko bilkuran onartutako ordenantzari jarraiki, 2017. urtean garraio diru-laguntza deialdia luzatzen du 03.326.480.000 partida zenbakia duen 3.000 euroko kopurua banatu ahal izateko.

LEHENENGOA. - Deialdiaren xedea:

Aramaiotik kanpo ikasten duten herritarrei diru-laguntzak ematea, garraio kontzeptuan eta aurrekontuan jasota dagoen partidaren mugaren barruan.

BIGARRENA. - Onuradunak:

Aramaion erroldatuta egonik, 2016-2017 ikasturtean jarraian zehazten den ikasketaren bat egin duenak edo egiten ari denak jaso dezake garraiorako diru-laguntza: DBH, Batxilergoa, erdi mailako eta goi mailako ikasketak, eta unibertsitate ikasketak.

HIRUGARRENA. - Egitarau subentzionaerriak:

Aramaioko Udalak garraio kontzeptuan diru-laguntzak banatuko ditu, 2016-2017 ikasturteari dagozkionak, beti ere egin behar den ibilbidea egiteko doako garraiorik ez dutenezat.

LAUGARRENA. - Diru-laguntzen izaera:

Diru-laguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez.

BOSGARRENA. - Diru-laguntzen zenbatekoa:

Diru-laguntza hauek emateko udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko dira: 03.326.480.000 partida zenbakia duen 3.000 euroko kopurua.

2017 ekitaldiko aurrekontuaren arabera banatuko dira diru-laguntzak eta honako hau izango da prozedura:

- Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek, eta horrela egiaztatzen dutenek, kopuru berdina jasoko dute.

- Balorazioa, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egingo du Euskara teknikariaren laguntzarekin.

- Behin eskaera guztien balorazioa eginda, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak proposamena Alkateari luzatuko dio.

- Diru-laguntzen muga dagokion aurrekontuan horretarako ezarritakoak adieraziko du.

- Ezingo da benetako kostua baino diru-laguntza handiagorik lortu.

SEIGARRENA. - Diru-laguntzen ordainketa:

Alkateak Euskara eta Hezkuntza Batzordearen proposamena ontzat hartu eta ebatzi eta gero, diru-laguntzaren ehuneko ehuna ordainduko da.

ZAZPIGARRENA. - Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

7.1. Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duenak honako hau aurkeztu beharko du:

- Eskatzailearen NAren fotokopia
- Egin duen ikasketen matrikularen fotokopia.
- Kontu korrante zenbakia eta titularraren izena eta abizenak.
- Zinpeko aitortpena adieraziz ez dela 38/2003 Legearen, Dirulaguntzen Lege Orokorren IV Tituluan jasotako arau-hauste batengatik zigortua izan.
- Ogasuneko eta Segurantzako Sozialeko ziurtagiriak, eskatzaileak zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak.

Aipatzen azken bi dokumentua zinpeko aitortpen batek ordezkatu dezake, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, diru-laguntzetarako lege orokorraren, arabera.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskaera egiteak dakar oinarri hauetan ezarritakoa espresuki zein formalki onartzea.

Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, pertsona eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie hutsuneak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, ezetza emandakotzat joz.



7.2. Eskerak Aramaioko Udalak aterako duen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira, behar bezala beteta, 7.1. artikuluan jasotzen diren agiriarekin batera. Eskerak aurkezteko epea 2017ko uztailaren 29an bukatuko da, hori barne.

7.3. Eskabideak Aramaioko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira, bulego ordutegian (9:00etatik 14:00etara). Honek ez du eragozten 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena 16.4. artikuluan ezarritakoa bete behar izatea.

ZORTZIGARRENA.- Interpretazio eskumena.

Aramaioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak dagokio eskumena, deialdia interpretatzeko, sor daitezkeen zalantzak ebazteko, herri-onurako arrazoiengatik deialdia aldatzeko edota amaiera eman eta amaiera horren ondorioak zehazteko.

BEDERATZIGARRENA.- Organo eskuduna:

9.1. Euskara eta Hezkuntza batzordea izango da espedientearen jarraibideak eta proposamena emango dituen organoa. Alkatea izango da diru-laguntzen ebazpena egingo duen organoa.

9.2. Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio-egintza guztiei aurka egingo ahal izango zaie, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako egoera eta eratan.

(ESKAERA ORRIA ATXIKITZEN DA)"

8. UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZA ETA MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA.

Alkateak hitza hartu eta Zerbitzu Batzordeak luzatutako proposamenaren berri ematen du:

👉 Gaur egun, amaitua dago Udal Kiroldegia eta beste hainbat guneren garbiketa, zaintza eta mantentze zerbitzua kontratua. Zerbitzu horiek ematea beharrezkoa da herritarren bizi baldintzak mantendu eta higiene eta garbitasun egoera egokia bermatzeko. Horren ondorioz, egokia da kontratu hau berritzeko lehiaketari ekitea.

Ikusirik, espedientearen kreditu nahikoa badagoela egiaztatzen duen ziurtagiria jaso dela. Halaber, ondorengo ekitaldietan aurreikuspen nahikoa egin beharko da.

Ikusirik, Kontratu esleitzeko moduari eta prozedurari dagokienez, prozedura irekia erabiliko dela esleitzeko irizpide bat baino gehiago hartuta. Aipagarria da, baita ere, kontratuaren kopurua eta iraupen epea kontuan hartuz, arautze harmonizatuari lotutako kontratua dela. Izan ere, kontratu honen xedea ezin hobeto definitu da baldintza administratibo eta teknikoaren agerian, eta ezin da epea aldatu, ezta ezelako aldaketarik sartu ere. Hori guztia, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak 150.3.g) artikuluan agintzen duenarekin bat etorri. Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen arau horrek. .

Ikusirik, udaleko idazkariaren lege txostena bertan jaso dagoela eta aldekoa dela.

Aurrekoarekin bat, Zerbitzu Batzordeak proposatzen dio Udalbatzari akordio hau har dezan:

Lehena.- Udal Kiroldegia eta beste hainbat guneren garbiketa, zaintza eta mantentze zerbitzua kontratatzeke espediente irekitzea.

Bigarrena.- Espediente eta bertan jasotako dokumentazioa onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezian eta preskripzio teknikoaren agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

Hirugarrena.- 102.850,00.- euroko gastua baimentzea, indarreko udal-aurrekontuaren 02.153.210.000; 02.171.227.010; 02.163.227.015; 02.164.227.991; 02.164.227.010; 02.330.211.000; 02.340.211.000; eta 02.340.227.991 partidetan egozteko.

Laugarrena.- Lizitazio-prozedura irekitzea; hain zuzen ere, prozedura irekiaren bidez, esleipen-irizpide bat baino gehiago kontuan hartuta; izapidetze arruntarekin eta arautze harmonizatuari lotuta bideratuko dena.

Bosgarrena.- Dagozkion lizitazio-iragarkiak argitaratzea, EBAOn, ALHAOn eta EAOn, parte-hartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitze aldera.+

Lehendakariak bozketa deitu du eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, Ongizate Batzordearen proposamena, aho batez ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



9. ARAMAIOKO UDALAREN ESKU DAUDEN HAINBAT ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA.

Alkateak hitza hartu eta Zerbitzu Batzordeak luzatutako proposamenaren berri ematen du:

Gaur egun, amaitua dago udalaren esku dauden hainbat eraikinen (esaterako, udaletxea, osasun zentroa, kultur-etxea, eta abar) garbiketa zerbitzuari buruzko kontratua. Zerbitzu hori ematea beharrezkoa ikusten da eraikin horien baldintzak mantendu eta higiene eta garbitasun egoera egokia bermatzeko. Horren ondorioz, egokia da kontratu hau berritzeko lehiaketari ekitea.

Ikusirik, espedientean kreditu nahikoa badagoela egiaztatzen duen ziurtagiria jaso dela. Halaber, ondorengo ekitaldietan aurreikuspen nahikoa egin beharko da.

Ikusirik, Kontratua esleitzeko moduari eta prozedurari dagokienez, prozedura irekia erabiliko dela esleitzeko irizpide bat baino gehiago hartuta. Aipagarria da, baita ere, kontratuaren kopurua eta iraupen epea kontuan hartuz, arautze harmonizatuari lotutako kontratua dela. Izan ere, kontratu honen xedea ezin hobeto definitu da baldintza administratibo eta teknikoen agirietan, eta ezin da epea aldatu, ezta ezelako aldaketarik sartu ere. Hori guztia, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak 150.3.g) artikuluan agintzen duenarekin bat etorritik. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen arau horrek. Aurreko guztiaz gain, azpimarratzekoa da kontratu honetan jasotzen dela, gaur egun lanean ari diren langileen subrogazioa egiteko obligazioa.

Ikusirik, udaleko idazkariaren lege txostena bertan jaso dagoela eta aldekoa dela.

Aurrekoarekin bat, Zerbitzu Batzordeak proposatzen dio Udalbatzari akordio hau har dezan:

Lehena.- Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeke espedientea irekitzea.

Bigarrena.- Espedientea eta bertan jasotako dokumentazioa onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

Hirugarrena.- 81.000,00.- euroko gastua baimentzea, indarreko udal-aurrekontuaren 02.920.227.010; 02.313.227.010; 02.312.227.010; 02.323.227.010; 02.323.227.011; 02.330.227.010; eta 02.330.227.011 partidetan egozteko.

Laugarrena.- Lizitazio-prozedura irekitzea; hain zuzen ere, prozedura irekiaren bidez, esleipen-irizpide bat baino gehiago kontuan hartuta; izapidetze arruntarekin eta arautze harmonizatuari lotuta bideratuko dena.

Bosgarrena.- Dagozkion lizitazio-iragarkiak argitaratzea, EBAOn, ALHAOn eta EAOn, parte-hartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitze aldera.+

Lehendakariak bozketa deitu du eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, Ongizate Batzordearen proposamena, aho batez ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

10. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.